



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu”

2021eko urriaren 24a  
Urteko 30. igandea (B)

### Markos 10, 46-52.

Jerikora iritsi ziren. Eta Jesus bere ikasleekin eta jendetza handiarekin hiritik irteterakoan, Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eserita. Jesus Nazaretarra zela jakitean, oihuka hasi zen: -Daviden Semea, Jesus, erruki zakizkit!

Askok gogor egiten zioten, isilarazteko; baina hark areago oihu: -Daviden Semea, erruki zakizkit!

Jesusek gelditu eta hari dei egiteko agindu zuen. Dei egin zioten itsuari, esanez: -Izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik.

Bere soingainekoa jaurtikiz, salto batean zutitu eta Jesusengana joan zen. Jesusek galdegin zion: -Zer nahi duzu niregandik?

Itsuak erantzun: -Berriro ikustea, Jauna.

Jesusek esan zion: -Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu.

Une berean ikusmena etorri zitzaion berriro, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.

Jesusek galdegin zion: -Zer nahi duzu niregandik?  
Itsuak erantzun: -Berriro ikustea, Jauna.

## ITSU IZATETIK SENDATU

*Jose Antonio Pagola*

Zer egin genezake geure bihotzean fedea epeltzen ar dela nabari dugunean? Daitekeena ote erreakzionatzea? Irten ote gintezke axola-ezetik? Bartimeo itsuaren sendatzea dakarkigu Markosek, bere irakurleei bihotz emateko, bere bizitza aldaraz lezakeen ibilbidea egitera jo dezaten.

Ez da neke geure burua ezagutzea Bartimeoren irudi horretan. Inoizka «*itsu*» bezala bizi ohi gara, begirik gabe, Jesusek ikusten zuen moduan, bizitza ikusteko. «*Eseririk*», ohiko erlijio batean kokaturik, Jesusen urratsei jarraitzeko kemenik gabe. Desbideraturik, Jesus egiten ari den bidearen «*ertzean*», hura hartu ezinik geure kristau-elkarteen gidaritzat.

Zer egin genezake? Bereitsu-izaera eta guzti, Bartimeok «*jakin du*» ezen bere ingurunean dabilela Jesus. Ezin utzi du galtzen bere aukera, eta hoska ekin dio, behin eta berriz: «*erruki nitaz*». Horixe da beti lehenengo gauza: bihotza irekitzea edozein deiri edo esperientziari, geure bizitza sendatzera gonbidatzen gaituenean.

Itsuak ez daki bestek egindako otoitzak errepikatzen. Dei-hotsa bakarrik atera zaio, erruki-eskea soilik, bere burua gaizki ikusten duelako. Dei-hots apal eta egiati hori, bihotz-barnetik atera den hori, bizitza on baten hasiera gerta dakiguke. Jesus ez da igaroko gure ondotik kasurik egin gabe.

Itsuak lurrean jarraitzen du, Jesusengandik urrun, baina adi-adi entzun du bidalitakoek esaten diotena: «*Aupa! Jaiki! Deika duzu!*» Lehenik, bihotza ireki du, esperantzari zirriztu txiki bat eskainiz. Ondoren, deia entzun du, jaiki eta erreakziona dezan. Azkenik, ez dago bakarrik: deika sumatu du Jesus. Guztiz aldarazi du horrek itsua.

Orduan, hiru urrats egin ditu Bartimeok, bere bizia aldatuko dutenak. «*Gain-jantzia bota du*», oztopo du Jesusengana joateko. Gero, artean itsumustuka bada ere, «*jausi bat egin du*», ausart. Horrela, Jesusengana «*hurbildu da*». Horra zer behar genukeen gutako askok ere: geure fedea itotzen ari diren lotura askotarik geure burua askatu; behingoz erabaki hartu, gerorako utzi gabe; eta Jesusen aurrean jarri, konfiantza xumez eta berriz.

Jesusek galdetu dionean zer nahi duen, itsuak ez du dudarik. Ederki asko daki zer behar duen: «*Irakasle, ikus dezadala*». Hori da gauzarik inportanteena. Norbait gauzak era berri batean ikusten hasten denean, eraldatu egiten da halakoaren bizitza. Elkarte bat, Jesusen argia ikusten duenean, bihotz-berritu egiten da.